

Liburuak

KRITIKA

Itsasoko izaki.
Amaia Lasa.
Maiatz. 12 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona

Gatzaren zaporea

LEUN ETA BABESTURIK sartzen da bat altzo formako liburu gozo honetara, kontuak entzutera. Lurdes Muñozen marrazki borobilduek apaindua, Jose Luis Padronek labur eta ondo hitzaurretua, Kattin eta Mikel seme alabei eta “nire anaiei ere” dedikatua, *Itsasoko izaki* aspaldiko liburu baten fruitu berria dela ematen du. Aurrez argitaratutako poemak ere badaude bertan, eten ez den kate horren adibide, baina era berean Amaia Lasak zer edo zer berria kausitu duela dio: “zu zeunden/ hondoan/ bakar bakarrik/ behargorri/ biluzik/ negarez/ maitasun eske/ edozein emakume bezala”.


Denborak astiro ondua (*Zoriaren begadak*, 65. orrialdea), apur bat atzokotua eta sano orekatua da *Itsasoko izaki*. Bizitzari buruz bozkarioz hitz egiten duen liburu bitalista horietakoa da, eta era berean pausatua. Lehenaldia, orainaldia eta etorkizuna agertzen dira plano berean. Hirurak batzen diren puntuan, gainera, Amaia Lasaren paradisu paganoa dago: “Bada kosmo oparoan/ itsasoa/ lurra eta ni/ besarkatzen garen/ une bat” (69. orrialdea).

Emakume ezpain gorri freskoekin eta talaiako ikuspegi zabalarekin idazten du getariarrak. Igartzen da edertasunarekin batera esperientzia eta jakituria, denak biltzen diren bizitzako arotik idazten digula Amaia Lasa lasaiago batek, nire belaunaldikook ezagutu ez genuen beste Amaia Lasa haren jarraipen eta ukapen, *Geroaren aurpegia* (EHU, 2000) lanaren ildotik aurrera doanak.

Politikaz eta heriotzaz dihardu, maitasunaz eta bakardadeaz, norberarena eta kolektiboa bereiztu barik, emakumea eta mundua bereiztu barik. Biografia eta historia askotan nahasten dira *Itsasoko izaki* honetan – “aingura astun baten/ burnizko hariak hautsiz/ ozeano urdinaren ur sakonetan/ emeki-emeki murgildurik...”–. Liburuaren gatz zaporeak lurrarekin eta ugalkortasunarekin identifikatzen den emakume-ahotsa urarekin nahasten du. Amaia Lasaren itsasoa, finean, liburu honetako pertsonaia nagusia da, ez soilik markoa. Itsasoa da askatasuna eta lasaitasuna, itsasoa da abentura. Itsasoa da, edozelan ere, gure gainetik dagoen zerbait, denok itzuliko garen sabela: “Zaldi urdinen zurda zuri gainean/ arrazoi hutsaren bide hotzetan/ galdurik/ olatu handietako aparretan/ lehorturik/ arrazoi ezaren/ lurraldeetan murgiltzen”. Itsasoaren maila irudimenaren maila da liburu honetan: gero eta sakonago, gero eta inkontziente eta askeagoak dira Lasaren konposizioak, itsasgora eta itsasbeheren pentzura dabiltzanak, apur bat urrunago iristearen pozean beti. ■

Errioxako euskara zaharrari buruz

XX. mende osoan hainbat egilek azpimarratu izan dute Errioxan (Espainia) euskaraz hitz egin izan zela; beste aditu batzuk berriz, fenomenoari garrantzia kentzen saiatu dira, euskaraz utzitako arrastoak esparru geografiko txiki batean bakarrik aurki daitezkeela esanez. Baina, Eduardo Aznar Martinezek *El euskera en La Rioja*. *Primeros testimonios* liburu



El euskera en La Rioja.
Eduardo Aznar.
Pamiela.
380 orr. 23 euro.

ruan azpimarratzen duenez, aurkitu diren erro-matarren garaiko azken aztarnek eta Iberiar Penintsulako hizkuntzei buruz gaur egun dagoen jakintza zabalagoak ikuspegi berriak ematen dituzte. Errioxan euskara arkaiko mota bat hitz egin zitekeela baieztatzen du Pamielak argitaratu duen liburu honek. ■

Gramatika emendakinak Zuberoako euskaraz

Euskaltzaindiak argitaratu du Zuberoako euskararen eta euskara batuaren arteko zubilana egiteko xedea duen liburu hau. Jüje Etxebarnek osatu du liburuak, AEKrekin eta Xiberoko Gaü Eskola Laminak elkartarekin batera. Batua ikasteko material asko zegoela konturaturik, baina aldiz, estandar horri Zuberoako mintzadarretik begiratzeko libururik ez zela jabeturik ekin zion lanari Etxebarnek; baina berdin baliagarria da batua jakinda Zuberoako euskara ikasi nahi duenarentzat ere. Ortografia, ahoskatzeak, deklinabidea, sintaxia... Denak lantzen ditu liburuak, baina arreta berezia eskaintzen dio aditzari, hori baita behar bada zubi-lan horretako alderdirik bereziak. ■

Gramatika emendakinak Zuberoako euskaraz.
Jüje Etxebarne.
Euskaltzaindia.
140 orrialde. 12 euro.

